




• ASTEKO GAIA •

Esklabo trafikoa debekatu zutela bi mende pasa ondoren, ekitaldi garrantzitsua egin zen Britainia Handiko Wesminsterreko Parlamentuan. “Lotsatuta egon behar zenuke!” esan zion garrasika Toyin Agbetu aktibista beltzak Ingalaterrako erreginari. Barkamen eta kalteordainen eztabaida lehertu den honetan, esklabotzaren historia herrikusteko aukera paregabea agertu zaigu. Eta bide batez, euskaldunok giza abere salerosketan izan genuen papera gogoratuko dugu.

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA*

Itsasontziz esklaboak garraiatzearen debekua

Westminster 1807-2007

200 URTE DA WESTMINSTERREKO Parlamentuak erabaki zuela. Erresuma Batuko itsasontziek esklaboen garraioa debekaturik izan zuten 1808 ondoren. Erabaki hura gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatu dira –*Heritage Lottery Fund* elkarteak hamar milioi liberarekin finantzaturik–, eta besteak beste, Liverpoolen nazioarteko esklabotzaz museo berria irekiko da abuztuan.

Tony Blair lehen ministroak *deep sorrow* (barkamena) eskatu du, britainiarrak bete-betean sarturik ibili zirelako esklaboak Afrikatik Ameriketara garraiatzen. Ez gehiago, baina ezta gutxiago. Eta eztabaida ere piztu da: Erresuma Batuak irabazi handiak lortu zituen, eta ondorioz, Estatuaren aldetik nolabaiteko ordaina egon beharko litzate-

ke batzuen ustez, esklabotzak oinordeko ugari utzi zituelako. Soka luzeko kontua dugu hau –Alemaniak 1940 urtean langile esklaboak erabiltzea ordaindu du–, esklabotza gizateriaren aurkako ekintza handia baita, eta gaur egunean ere oraindik indarrean dago. Baina beharbada, soka horren ondorio iraunkorra arrazismoa da, itxura fisikoagatik pertsona batzuk besteak baino gehiago direla uste izatea. James Walvin historialariak dio: “Begira, Liverpool, Bristol edo Londresko hainbat eraikin eta erakunde txukun bezain eder, oinarrian esklabotzari esker lortutako aberastasunak eraikiak dira. Horra nortzuk garen”.

Euskal Herrian ere, beste horrenbeste esateko aukera dugu: begira gure elizetako kanpandorre

ederrak, XVIII. mendeko Argien garaian txukunduak. Begira kostaldeko herriak. Eta Gasteizko kultur fundazio edo apaiztegi horma sendozkoak: esklaboen salerosketaren bidez jasotako eraikinak eta aberastasuna, geureak balira erabiltzen ditugunak. Horra gure zorra. Baina kontu honek oraindik afrikarren ganean itzelezko zama du. Eta askok ez dute horrelako ospakizunik nahi. Zurien ideia da. Ospakizunean ez da ageri beltzen borroka eta bai, berriz, “zurien zuriketa” (Benjamin Zephaniah, poeta). Esklabotzaren kontzeptua bera ere argitu behar da: “Bahiketak izan ziren eta bahitzaile gisa erakutsi behar da arazoa” (Toyin Agbetu, afrobritainiarren eskubideen aldeko aktibista). Ez da beraz ospakizunetarako garaia. Bai ordea, historia berrikusi eta berraztertzea.

Frantzian ere kolonialismoaren auziak eztabaida sutsua piztu du. Historiaren erabilpen publikoaz ari gara. Historialarien erantzukizunaz. Premiazko ote memoriari buruzko legeak? Zein memoria? Historialariok behintzat gauza bat izan behar genuke garbi: historiaren erabilpen okerra eta manipulazioa salatu behar dela. Horregatik, ikerketen bidez lorturiko emaitzak azaldu eta zabaldu beharko genituzke.

Westminster: 1807ko martxoak 25

Moralaren eta erlijioaren ikuspegitik pertsonen salerosketa onartezina zen kristau tradizioko talde batzuentzat, kuakeroentzat bereziki, eta horren kontrako kanpaina hasi zuten 1783an. Westminsterreko Parlamentuan, 1788an erabaki zuten itsasontzi bakoitzean medikua behar zela eta esklaboen kopurua egokitu behar zela itsasontziaren tona-kopurura. 1789an W. Wilberforcek abolizioaren aldeko ekimena aurkeztu zuen. Bi urte lehenago, *London Abolition Committee*-a (Londresko Abolizio Batzordea) sortu zen eta T. Clarksonek esklaboen salerosketari buruz ebidentzia ukaezinak bildu zituen. Horrela, bi pertsonaia gailendu ziren giro hartan: Wilberforce Parlamentuan eta Clarkson kalean.

Baina aldi berean, pertsonen arteko diferentziak eta arrazismoaren diskurtsoak indarra hartu zuten. Esklabotzaren aldekoek salerosketa beltza Ingalaterraren aberastasun iturri zela argudiatzen zuten. Azkenean, Parlamentuak 1807ko martxoan

Begira gure elizetako
kanpandorre eder eta horma
sendozko jauregiak, esklabotzari
esker jasotako eraikinak dira.

Horra gure zorra.

W. Clark-ek 1823an
Ten views of Antigua
lanean publikatutako
bi grabatu.
Ezkerrean; esklaboak
azukrea egiteko
kainabera moztzen.
Eskuinean; azukrea
itsasontzietan
kargatzen.

ren 25ean, itsasontzi bidezko esklaboen trafikoa debekatzeko erabakia hartu zuen. Hala ere, esklabotzaren legezko izaera ez zen 1834 arte desagertu, eta urte hartan berreskuratu zuten esklabo guztiek erabateko askatasuna britainiar lurraldeetan. Baina Westminsterreko erabakiaren ondorio garrantzitsuen zera izan zen: Erresuma Batuko armada esklaboen salerosketan aritzen ziren itsasontziak harrapatu, tripulazioak epaitu eta ondasunak saldu egingo zituen ordutik aurrera. *British West Africa-Squadron*-eko itsasontziak Afrikako kostaldean hasi ziren tratanteen itsasontziak ehibitzen eta itsasoan lege berria indarrean jartzen. Aitzakia horrekin, jakina, Erresuma Batua itsasoetako legelari nagusi bihurtzeko bidean jarri zen. Britainiarrak mundu politikan sartu ziren buru-belarri, *Pax Britannica*

eta gizatasun berri baten ideia bazter guztietan zabaltzeko ahaleginean. Izan ere, Palmenstonek –Atzerri Arazoetako ministro eta ondoren lehen ministroak– liberalismo berriaren printzipioak indarrez jartzeko erabakia hartu zuen. Palmertonen politikak Euskal Herrian izan zuen eraginik: bera izan zen 1839ko Bergarako itunaren bultzatzailea. Bakea eta foru autogobernuaren alde eginez, liberalismoak garaitu zuen Euskal Herrian eta Espainian.

Esklabotzaren aurkako lehen errebolta arrakastatsua: Haiti, 1791

Esklabotzarekin amaitzeko lehen borroka handia Frantziako kolonietan gertatu zen, Antilletako Santo Domingo uhartean. 1789ko iraultzaren oihartzunak ozeanoa gurutzatu zuen, eta bertako jauntxo zuriek, erregeazaleak izanik, esklaboak armatu zituzten aldaketaren kontra egiteko. Kontraesan nabaria iraultzarena: giza eskubideak aldarrikatu eta esklabotza kendu ez, frantziarrak ez zirelakoan. Hala ere, 1794an Konbentzioak esklabotzaren amaiera erabaki zuen eta 1802an berriz ezarri Napoleonek. Eta esklaboak zertan? Batzuk erreboltarako prest jarri ziren eta Toussaint L'Ouverture esklaboiha izan zuten buruzagi. Azkenik, 1804an, Haiti, esklaboen kolonia izandakoa, nazio libre bihurtzea lortu zuten.

Santo Domingoko uhartean gertaturikoa eredu izan zen aurrerantzean. Baina baita ➡



ESKLABOTZAREN AMAIERA

Estatu Batuak, 1865

1807an salerosketa beltzarekin amaitu zuten. Hala ere, zenbait estatutan esklabotzak jarraitu zuten, harik eta gerra zibila amaitzean, 1865ean, esklabotza guztiz abolitu zen arte.

* *François Dominique Toussaint L'Ouverture (1743-1803)*

Haiti, 1804

1789ko iraultzaren eraginez, Santo Domingo frantziar kolonian esklabo errebolta hasi zen 1791n, Toussaint L'Ouverture esklabo ohia buruzagi zutela. Errebolta Estatu Batuetako John Adams presidentearen laguntza izan zuen eta Napoleonek 50.000 gizon galdu ostean, Haiti libre geratu zen 1804an.



Kuba, 1886

Espainiako kolonia. Azukre ekolizle handiena izan zen esklaboen lanari esker. 1870eko hamarkadan esklaboek askatasuna lortu zuten gradualki, baina esklabotza ez zen 1886 arte abolitu. Julian Zulueta (1814-1878) bezalako sakarokratek gogor egin zieten kontra abolizio asmoel.



* *Julian Zulueta, Arabako Markesa, Kubako azken esklabista handia.*

Brasil, 1888

XIX. mendeko esklabotza-ekonomia indartsuena zuen. 1850ean esklabo salerosketa abolitu zen, baina esklaboak ez ziren libre izan 1888 arte.



* *Adalia itsasontzia*



Erresuma Batua, 1807

Westminsterreko deklarazioaren ondoren (1807), Europako herrialdeak esklabotza dësegin zuten pixkanaka. Frantziako kolonietan 1845ean; Herbeheretako Surinam kolonian 1863an; Danimarkan 1792an abolitu zen esklabo salerosketa, baina 1803an berri ere indarrean jarri zuten, etekin ekonomikoa ugaritu sortzen zituelako. 1848an, Mendebaldeko Indietako kolonietan daniarretan izandako errebolta baten ondoren abolitu zen esklabotza.



* The sorrows of yamba liburua, 1790. urtea. Josiah Wedgwooden marrazkia esklabotzaren ikur bilakatu zen.

Emigrazioa

Esklabotza gero eta estuago, Europako eskulan merkea beharrezkoa zen Amerikako estatu berrietan. Euskal Herrian "engantxadore" sare sendo bat osatu zen; Ipar Euskal Herriak, 1832-1890 bitartean, 2.000 gazte inguruk emigratu zuten urtero Amerikara, promesa faltsuei kasu eginez.

Olaudah Equiano

1756an, 11 urte zituela, bera eta arreba Niger ondoko herrixka batean harrapatu zituzten lurra lantzen. Ameriketara esklabo moduan saldu zuten. Askatasuna erosi eta marinel egin zen. 1789an bere autobiografia argitaratu zuen, eta testigantza hura esklabotzaren aurkako kanpainan eragin handikoa izan zen.



Afrika, esklabo harrobi

Afrikako ekialdean, Omaneko merkatarien eraginez, esklabo salerosketak berandu arte iraun zuen. Zanzibarren 1890. urte arte, britainiar protektoratu bihurtu zenean. Afrika mendebaldean salerosketa beltzerako portu ugari zeuden. 1787an Sierra Leonan (britainiar kolonia) esklabo salerosketa debekatu zen, bertan uzten zituzten britainiar ontziek liberatutako esklaboak. Bestalde, Liberia Amerikako esklabo libreen babesleku bihurtu zen XIX. mendean.



Death of Capt. Ferrer, the Captain of the Amistad, July, 1839.

On July 1st, 1839, the Amistad, a small schooner, was captured by the U.S. Navy off the coast of Africa. The ship was carrying a cargo of slaves, and the captain, Ferrer, was killed. The slaves were taken to the U.S. and held in custody. The Amistad case became a major issue in the fight against slavery in the United States.

* La Amistad itsasontziko errebolta, 1839. urtea. Esklaboak beraien sorterrira itzuli ziren Estatu Batuetan epaiketa irabazi eta gero.

Pio Baroja eta esklabo trafikoa: *Los pilotos de altura*

Beltzen tratanteen historiak idatzi den nobela onenetarikoa Pio Barojak idatzi zuen: *Los pilotos de altura*. Itzean amaitu zuen lana, 1929an. Julio Caro Barojak esan zidanez, Mundakako kapitain baten egunerokoa, beltzen tratante zailduena, zeukan begi bistan. Horregatik hainbat pasartetan, nobela barik, historia zehatza dugu hau. Garai beretsuan, Theodore Canoten kapitainaren historia argitaratu zen ingelesez, kazetari bati berak kontatua: *Adventures of an African Slave Trader* (New York, 1928)

Honela antolatzen zen negozioa: elkarte ekonomikoa sortzen zen, Habanan, Santanderren (Kantabria) edo Bilbon. Kapitaina aukeratzen zuten eta honek itsasontzia presatzen zuen arlo guztietan, beltzak garraiatzeko. Bestalde, "faktorea" izenez ezagutzen



zena zegoen, hau da, merkataritzaz ardura-tzen zena: azpiegitura lana, ura barriketan eta salerosketako pattrarra, tabakoa, jantziak, bolbora, bilboak edo girgiluak... Itsasontziko tripulazioa, hiru pilotuk, medikuak eta marinelek osatzen zuten.

Kapitainak negozioaren %10 kobratzen zuen, soldataz aparte. Afrikako kostaldera helduta, bertan *mongoa* zegoen: portugaldarra edo Brasilekoa, esklaboak biltzen zituen bertako errege edo buruzagiekin bat eginda. Esklaboak barrakatan ganadua balitz bezala gorde eta kopurua lortu ondoren, itsasontzira eramaten zituzten, Kubara abiatzeko. Britainiarren itsasontziak saihestearren, Kubako kostaldeko bazterren batean deskargatzen zituzten "bultoa". Bertan, erosleak berehala agertuko ziren.

beste paradoxa baten eragile ere: Haitin azukrearen produkzioa jaitsi egin zen, eta ondorioz, Kuban eta Jamaikan gora egin zuen eskariak, esklabotza sistema areagotuz. 1804 urtetik 1870 bitartera, hiru milioi eta erdi afrikar eraman zituzten uharte horietara.

Esklabotza eta munduko ekonomia berria

Duela lau mila urteko Hamurabiren kodean jadanik esklaboei buruzko lege arauak ageri ziren. Era berean, Txinako urtegi azpiegituretan edo Egiptoko piramideetan gizaki batzuek besteak indarrez erabiltzen zituzten. Aristotelesek *Politika* liburuan erakusten zuen gizateria halabeharrez edo, bitan banaturik zela: ugazabak eta esklaboak, eta azken hauek etxeko abereak baino ez ziren bere ustez.

Erdi Aroan esklaboen salerosketak Afrika eta Europako hegoaldearen arteko merkataritza oparoa izaten jarraitu zuen. Arabeek afrikar beltzak esklabo egin eta saldu egiten zituzten. Iruñea, esaterako, esklaboen merkataritzan gune nagusi bihurtu zen. XV. mendean portugesak bihurtu ziren giza abere tratante nagusi: Afrikako kostaldean zehar urte bila joan ziren eta urte beltza aurkitu. Gaztelako erregeak ere, Kanariar Uharteetarako eskulana lortzeko baimena eman zion Medina Sidoniako dukeari, eta Ginearantz abiatu ziren esklabo bila.

Ameriketako lur zabalak europarrentzat eza-gunago bihurtu zirenean, Euskal Herriko bailara txiki eta pobreetan ezinezkoa zena indarrez jartzen saiatu ziren urazandi. Ekonomi sistema berrian nabigazioa nahitaezkoa zen eta Bizkaiko golkoan hainbat marinela, pilotu eta merkataria iaio zegoen. Garai bateko Mediterraneoaren ordez, Atlantikoa etxe barneko itsaso berri bilakatu zen. Hargatik Euskal Herria, mundu ekonomiaren erdi-erdian kokaturik zegoen. Giro honetan, Amerike-

Pio Barojak Mundakako kapitain baten bizitza idatzi zuen bere lanean. Tratantearen egunerokoaren bidez, esklabotzari buruz idatzi zuen itzeako idazleak. Irudian; esklabo bati burni goriz "marka" jartzen.

tako lurra Europa eta Afrikako jendez bete zen, sekula ezagutu gabeko giza abereen salerosketarik handienari

hasiera eman. Aldi bi bereizi ziren trafiko zital honetan: Lehenengoan, XVI. mendetik XIX. mende hasiera arte, esklabo beltzak Afrikatik garraiatu zituzten etengabe. Bigarrenean, XIX. mendean, trafikoa debekaturik eta esklaboak gero eta garestiago, tratanteek isilpean jardun zuten.

Afrikako beltzak Ameriketara

Hasieran, Gaztelako erregeak debekaturik zien juduei, moriskoei, konbertituei eta Aragoako koroako biztanleei Ameriketara joatea. Gero, esklabo banaka batzuk eramaten hasi ziren. Eta azkenik, Fernando errege katolikoak esklabotza sistema baimendu zuen. 1517tik aurrera, Afrikako kostaldea Mundu Berrirako eskulan merkea lortzeko harrobi bilakatu zen. Hiru mendez, 11 milioi afrikar indarrez jazarri zituzten.

Esklaboen izerdiak ez ezik, aberastasuna esklabo trafikoak ere sortzen zuen, trianguluzko merkataritza bidez (Europa-Afrika, Afrika-Amerika, Amerika-Europa). Portugaldarrak izan ziren lehen tratante nagusiak eta ondoren britainiarrak. Ingalaterran, XVII. mende erdian hasi zen nabarmentzen esklaboen salerosketa eta XVIII. mendean izugarritzko garrantzia hartu zuen. Bristoleko John Cary merkataria 1695ean esan zuenez, merkatal trafikoa oparoena zen hura, itsasoan zein lurrian lanbide ugari sortzen baitzuen. 1713an, ingelesek, Utrecheko bake hitzarmenean, Espainiako Ameriketako koloniak esklaboz hornitzeko *Asiento-a* (kontratua) lortu zuten eta *South Sea Company* (Hegoaldeko Itsasoko Konpainia) sortu zen, esklaboen hornikuntza segurtatzeko. Erresuma Batua itsasoan nagusitzen hasi zen eta Bristol edo Liverpoolgo kaleak eraikuntza dotorez bete ziren.

Sekula ezagutu gabeko giza abereen salerosketa handienari hasiera eman zitzaionean, Euskal Herria mundu ekonomia berriaren erdi-erdian kokatu zen.

Esklabotzaren errentagarritasunari buruzko eztabaida laster piztu zen ordea. 1776an, Adam Smith ekonomilari ezagunak zioen merkeago zela langile libreak erabiltzea esklaboak baino. Hala ere, onartu behar izan zuen azukrearen produkzioan, esklaboek bidezko irabaziak inon baino gehiago sortzen zirela. XVIII. mende amaieran, Afrikako merkataritza –esklaboek salerosketan oinarritua –Asiako merkataritza baino garrantzitsuagoa zen.

Euskal Herria eta Espainia esklabotzaren negozioan

XIX. mendean, Santanderretik eta Bilbotik itsasontzi mordoak joaten zen Afrikara manu fakturak eramatera eta handik Kuba eta Puerto Ricora jotzen zuten esklaboz karga-karga eginda. Garai haietan, Bilbon hainbat merkatal enpresa zeuden. Esaterako, Ybarra familiaren gutunetan, 1830eko hamarkadan bi itsasontzik egindako bidaia azaltzen da, irabazi oparoak lortu omen zituzten esklaboak garraiatuz –*Cazador Santurzano* zen itsasontziaren izena eta lehen bidaian Eloorriaga kapitainak “681 bulto” deskargatu zituen Kuban–. Izan ere, kostaldeko pilotu eta kapitain ugari esklaboak eramaten jardun zuen itsasontzietan, eta Kubara egin zuten hainbat euskaldunek ere uharte hartako sakarokrazian –azukre plantazio jabeak– parte hartu zuten, haien produkzioa esklabotzan oinarrituz.

Esklabotzaren inguruko eztabaidak Espainiako inperioa ere astindu zuen. 1864an, Puerto Ricoko Julio Vizcarrando bihurtu zen esklabotzaren aurkako elkartearen buru (*Sociedad abolicionista Española*). Esklaboek jabe izanik, libre utzi zituen abolizionista honek. Ingalaterran erabili zen ikur berbera bereganatu zuen Vizcarrondok eta *Revista Hispano-americana*-ko lehen zenbakian esklaboek salerosketaren amaiera eskatu zuen.

Aldi berean, esklabismoaren aldekoak ere bazeuden. Afrikan esklabo eta preso zeudenen tzat Kuba aukera berria eta hobea zela aldarrikatzen zuten hauek. 1865ean, Espainiako Parlamentuan esklabotzaren arazoa eztabaidatzen zen bitartean, Kuban, bertako liberalek esklabotza-



W. Clark, *Ten views of Antigua* (1823).

Esklaboak azukre kainaberentzako lurra lantzen.

ren amaiera eta erreforma politikoak aldarrikatu zituzten *El siglo* egunkariaren bidez. 12.000 *criollo*-ren sinadurak lortu zituzten eta besteak beste, Estatu Batuetako produktuen tarifak jaitea eta Espainiako Parlamentuan Kubako biztanleek ordezkari zuzena izatea eskatu zuten. Baina Kubako Espainiaren aldeko Partidua horren aurka zegoen –Julian Zulueta euskal herritarra zen alderdi horren buru–. Ez zuen nahi ez autonomiarik ez aldaketa politikorik ere. Hori bai, tarifen beherapena ongi etorria zen.

Esklabo jabeek argudiatzen zuten esklaboek beren borondatez egiten zutela lan. Baina, hara 1866ko apirilaren 3an *New York Times* egunkariak argitaratu zuena: Zulueta eta Aldamaren etxauntza handi batzuetan, greban jarri zirela, Matanzas aldeko lurraldean. Antza, esklaboek lanaren alokairua eskatzen zuten, baina lurjabeek soldaduak bidali eta berriz halabeharrezko lanean hasi behar izan zuten erreboltariak. Giro nahasi horretan, Canovas del Castillo Espainiako ministroak esklaboek salerosketa erabat kentzeko lege egitasmoa sustatu zuen. Azkenik, Espainiako Parlamentuak 1867an esklaboek merkataritza debekatzeko onartu zuen. Ez ordea esklabotza; horregatik, abolizionistak ez ziren erabat ados lege berriarekin. Berez, esklabo beltzen salerosketak 1870eko hamarkada arte jarraitu zuen Kuban. ■

*Irakasle gonbidatua Oxforden
(Oxford, Basque Visiting Fellow: 2006-2007)

Txapelak buruan to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia

telf. 943428299 www.txapelaburuan.com